

Planifikazioa, hizkuntz normalkuntzaren koxka

«**P**lanifikazio» kontzeptua kale-mailan normalean ekonomi alorrari edo Estatuaren interbentzio-politikari lotuta azaltzen baldin bada ere, askoz ere eremu zabalagoari dagokion kontzeptua da. Planifikazioaren aplikazioa arlo eta mota oso ezberdinetan ematen bait da gure gizartean. Laburbilduz, gaurko egoeratik abiatuz eskuratu nahi dugun helburura iristeko, eragile nagusiak zein diren kontutan izanik eta eskuartean ditugun bitartekoak ahantzi gabe, markatu dugun prozesuan bitarteko bakoitzak non eta noiz parte hartu behar duen zehaztea da planifikazioaren helburua, bitartekoen ezaugarrien arabera hauek zenbat eta nola eragiten duten kontutan izanik.

Horixe izan zen EKBko Plangintza-Batzordeko partaideek joan den urtean prestatu eta Iruñeako Uztaileko Uda-ko Euskal Unibertsitateko Soziolinguistikako mintegian aurkeztu genuen lanaren funtsa. Gaurko euskararen egoeratik abiatuz euskararen erabilpenaren normalkuntza osoa eskuratu behar dugula kontutan izanik, prozesu horretan zein diren eragile nagusiak, zein eskuartean ditugun bitartekoak, eta markatutako prozesuan non, noiz eta nola parte hartu behar duten bitarteko hauek, bakoitzaren ezaugarriak.

rriak kontutan izanik; guzti hori zehaztea izan zen Plangintza-Batzordearen lanaren helburua.

Euskal Herriko udalerri-mailako lehen aportazio hau aurreten kaleratuko du EKBk UEUren argitalpenaren bidez, eta lan honen aurkezpena eta laburpena izan nahi duen artikuluhonek izan ditzakeen hutsuneak argitalpen horretan sakonago azalduak eta aztertuak izango dituzuelakoan gaude. EKBren «Planifikaziorako Orientabideak» edo Nafarroako euskara-teknikarientzat prestatu zen «Hizkuntz Normalkuntzarako Ekinbideak Udalerrri Mailan» lanetan aurti dezakezuen planifikazio-proposamen hau EKBk udalerri-mailara mugatu baldin badu, herri-mailan dauden errealitate organizatiboei, euskara-taldeei, EHEko taldeeiedota bestelakoei, hizkuntz normalkuntzan lan eraginkorra egin dezaten EKBk tresna bat eskaini nahi izan dielako da.

Euskararen egoera eta eragile nagusiak abiapuntu

*«Markatu dugun
prozesuan
bitarteko
bakoitzak non eta
noiz parte hartu
behar duen
zehaztea da
planifikazioaren
helburua»*

Ez gara idazki honetan euskararen gaurko egoeraz luzatuko, baina bi gauza gogoratu nahi ditugu. Euskarak ez du sekulan gaur adina baliabiderik izan normalkuntzari ekiteko, baina era berean, inoiz ez du bere heriotza hain gertutik ikusi, erdara inoiz baino erabiliagoa den une berean euskara inoiz baino gutxiago erabiltzen bait da. Eta horregatik diogu euskararen biziraupena ez dagoela inondik ere ziurtaturik.

Eragile nagusiei dagokienez, hizkuntza gutxiengotu baten erabilpenaren normalkuntzan aldagai askok eragiten duela esan beharrean gaude, nahiz eta aldagai horiek oinarritzko beste bi multzo nagusitan biltzen diren: Institutuzioen dinamika batetik, eta Herri-dinamika bestetik. Bakoitzak du bere lekua, erantzuna eta eginkizuna.

Hizkuntzaren normalkuntzarako plangintza orokorra, politika orokorraren aspektu bat baino ez denez, plangintza bideratzeak botere politikoa eskatzen du, hau da, indar legala eta bitarteko ekonomikoak, eta bi hauek Institutuzio Publikoen esku daudenez, hauek dira plangintza orokorra bultzatu behar duten ente nagusiak.

Baina bestalde, hizkuntza normalizatzen bada, ez da instituzioetan erabiltzen delako, herri osoak bere egiten delako baizik, herria bait da hizkuntz erabilpenaren subjektu. Gure kasuan, gainera, herri-dinamika izan da urtetan euskara bizirik mantendu duena, Institutuzioetatik baztertzen zen bitartean.

Gauzak horrela, gure hizkuntza nazionalaren erabilpena normalizatu behar badugu, funtsezkoa da herritar guztion eta Institutuzio Publiko guztien inplikazio osoa, euskaldunona bereziki. Euskararen etsaiak neutralizatu behar ditugu, axolagabeak euskaltzaletu, euskaldunak militante aktibo bihurtu, guztiak organizatu presio soziala handitzeko, hizkuntzaren inguruko kontzientzia eta jarrera politikoa garatzeko eta erasoak salatzeke.

Baina guzti hori ez da nahikoa. Ez da nahikoa euskararen gizarte-balioa handitzeko kanpainak burutzea, ez da nahikoa presio soziala garatzea, ez da nahikoa euskararentzat legedia berria eskuratzea. Guztia da beharrezkoa, baina ez du euskararen etorkizuna garantizatzen, baldin eta une berean euskararen erabilpen-alorrean aurrerapauso nabarmenak ematen ez baditugu, eta horretarako PLANIFIKATU beharra daukagu gure herriaren berreuskalduntze-prozesua.

Planifikazio nazionala eta planifikazio lokala

Planifikatu behar dugun prozesua, euskararen erabilpenaren normalkuntzaren prozesua da, baina prozesu hori nazio-mailan bakarra izanik ere, izaera ezberdina hartzen du euskararen egoera soziolinguistikoak sortzen dizkigun garapen ezberdineko guneetan. Izan ere, planifikazioa bideratzeko, prozesua baldintzatzen duten hiru mailak kontutan izan behar ditugu: eremu territoriala, eremu soziala eta eragipena.

Eremu territorialaz ari garenean, planifikatu behar dugun prozesuak eragina izango duen eremu geografikoaz ari gara, Euskal Herriaz, Hegoaldeaz, herriaz...

Eremu sozialaz ari garenean berriz, hizkuntzak betetzen dituen funtzio sozialetaz ari gara, eta hauek hiru mailatan banatu ditugu: Funtzio Erabakiorrak edo Nazionalak, Sozialak edo Nagusiak eta Afektiboak edo Pertsonalak.

Azkenik, eragipenaz ari garenean, normalkuntz prozesua garatzeko bideratu behar diren hiru eragipen-mota nagusiez ari gara: Eragipen Ideologikoaz, Funtzionalaz eta Pertsonalaz.

Hiru maila hauek planifikazio nazionalen zein lokalean ematen dira, hiru mailak elkargurutzatuz lantzen bait da planifikazioa. Baina, lehentasunak definitzerakoan ez da hauen mailaketa berbera ematen toki guztietan. Bestalde, planifikazioaren erritmoa bere aplikazio-gunean dagoen indar politikoaren korrelazioa, herri-erakundeen presentziaren

«Gure hizkuntza nazionalaren erabilpena normalizatu behar badugu, funtsezkoa da herritar guztion eta Institutuzio Publiko guztien inplikazio osoa, euskaldunona bereziki»

eta euskararen erabilpenaren egoeraren araberakoa izango da.

Planifikazioaren lehentasunen definizioa

Eremu territoriala nazionala denean, planifikaziorako definitu dugun lehentasunen mailaketa nagusia hizkuntzak eremu nazionalean betetzen dituen funtzio sozial garrantzitsuenen araberakoa izango da, eta hauek hiru mailatan banatu ditugu:

*«Planifikazioa
bideratzeko,
prozesua
baldintzatzen
duten hiru mailak
kontutan izan
behar ditugu:
eremu territoriala,
eremu soziala eta
eragipena»*

Erabakiorrak edo Nazionalak

- Administrazioa
- Irakaskuntza
- Lan-mundua
- Komunikabideak

Sozialak edo Nagusiak

- Zerbitzuak
- Kulturgintza
- Aisialdia

Afektiboak edo Pertsonalak

- Senitartea
- Lagunartea

Baina planifikaziorako lehentasunen definizio honek, lehen esan dugun moduan eremu territoriala nazionala denean balio badu ere, aldatu egiten da eremu lokalean planifikazioa aztertzen eta sakontzen hasterakoan. Izan ere, hizkuntzaren normalkuntzan komunikabideen garrantzia ukaezina da, eta lehentasun erabakiorra dute maila nazionalako hizkuntz normalkuntzarako planifikazioan. Baina lehentasun berbera al dute komunikabideek Aulestia edo Donostia eremu territorialtzat duten euskararen erabilpena normaltzeko planifikazioetan markatzen diren lehentasunen artean? Edo azkenaldi honetan etengabe aipatzen den euskararen transmisio familiarak, garrantzi edo lehentasun berbera al du Tolosan edo Tuteran?

Bi eredu hauen bidez adierazi nahi izan duguna zera da, eremu territorialek dituzten ezaugarri espezifikoek, plano

teoriko orokorrean definitutako hizkuntz funtzioen lehen-tasunak aldatu egiten dituztela. Beste era batez esanda, euskararen normalkuntz prozesua benetan eraginkorra izan dadin, planifikatu beharreko lana aurretik garrantzia-ren arabera mailakatu behar dela. Euskararen alde egiten den guztiak balio du, baina guztiak ez du berdin balio, eta eta lehen-tasun horiek definitzeko bidea eskaintzen saiatu da EKBko Plangintza-Batzordea goian aipaturiko bi lan ho-riekin.

Planifikazio lokalerako bost tipologia

Lanaren hasieran esan dugun bezala, euskararen erabil-penaren normalkuntza udalerrri-mailan bideratzeko lan-tresna eskaini nahi izan die herrietako taldeei EKBk «Planifikaziorako Orientabideak» lanarekin. Eta proposa-men hau ahalik eta erabilgarrien gerta zekien, lehen-tasu-nen definizio teorikoa azaltzeaz gain, herrietako taldeek bi-zi duten ingurua kontutan izanik, bost proposamen maila-katu aurkeztu zituen Plangintza-Batzordeak.

Eremu territorial lokalak, euskara dakiten pertsonen ko-purua kontutan izanik, bost tipologiatan banatu ditu EKBk bere lanean, tipologia bakoitzean planifikaziorako lehen-tasun-en definizioa aurkeztuz eta azalduz. Bide beretik, tipolo-gia bakoitzean eman behar diren hiru eragiketa-motek (ideologikoak, funtzionalak eta pertsonalak) duten edukia zehazten du.

Lehen tipologia, herri erabat euskaldunena da, herri ele-bakar euskaldunena, eta bostgarrena berriz, herri erabat erdaldunena, herri elebakar erdaldunena. Erdian beste hiru tipologiak kokatzen ditugu: herri euskaldunak, erdaldun-duak eta hiriburuak. Hona hemen bi eredu, argigarri izan daitezkeelakoan:

*«Euskararen
normalkuntz
prozesua benetan
eraginkorra izan
dadin, planifikatu
beharreko lana
aurretik
garrantziaren
arabera mailakatu
behar da»*

*«Eremu territorial
lokalak, euskara
dakiten pertsonen
kopurua kontutan
izanik, bost
tipologiatan
banatu ditu EKBk
bere lanean,
tipologia
bakoitzean
planifikaziorako
lehen-tasun-en
definizioa
aurkeztuz eta
azalduz»*

1. Tipologia

Herri erabat
EUSKALDUNAK

Funtzio Nazionalak

1. Administrazioa
2. Lan mundua

Funtzio Sozialak

1. Zerbitzuak
2. Ludikoa

Funtzio Pertsonalak

1. Transmisioa
2. Alfabetatzea

Eragipen Ideologikoa

Euskal Herri elebakarra
Euskaldun eleanitza

Eragipen Funtzionala

Elebakartasuna
Korpora eta Statusa

Eragipen Pertsonala

Euskaldun aktiboa
Autogorrito gaingidu

EREMU TERRITORIALA

EREMU FUNTZIONALA

ERAGIPEN MOTAK

5. Tipologia

Herri erabat
ERDALDUNDUAK

Funtzio Nazionalak

1. Irakaskuntza
2. Administrazioa

Funtzio Sozialak

1. Ludikoa
2. Zerbitzuak

Funtzio Pertsonalak

1. Kontzientzia
2. Integrazioa

Eragipen Ideologikoa

Euskararen aurkako
erretxazoa hautsi

Eragipen Funtzionala

Erdararen monopolioa
hautsi. Elebitasuna

Eragipen Pertsonala

Haur euskaldunak
Helduen euskalduntze

Urteko «Planning»era iritsi arteko urratsak

Azkenik, lanaren amaieran udalerrri bakoitzean euskararen erabilpenaren normalkuntza planifikatzeko gure ustez eman behar diren urratsak zehazten dira, talde eragilearen sorreratik abiatu eta helburu orokorreaz, nagusiz eta operatiboz landutako urteko «Planning»era iritsi arte.

Lehen urratsa, herri-mailan euskararen aldeko dinamika eta planifikazioa zuzenduko duen talde eragilearen sorrera da, bera izango baita herri osoaren aurrean prozesu honen aitzindaria. Esan beharrik ez dago talde eragile honek ahalik eta zabalena izan behar duela, batetik, eta herri ba-

koitzean izaera ezberdina izan dezakeela, bestetik.

Bigarren, gure lanari ahalik eta etekin gehien ateratzeko, herriari buruzko ahalik eta datu gehien eskuratu behar dira, planifikazioan eragin dezaketen bitarteko eta oztopo guztiak aurretik zehazteko: euskaldunen kopurua, adinen bilakaera, indar politikoen korrelazioa, eskolen eboluzioa, produkzio-sektoreak,...

Hirugarrena, lehentasunen zehaztapena da, goian aipatu dugun ildotik, behin egoera ezagutu ondoren, normalkuntzari begira lehentasunak markatzea da, horretarako hizkuntz funtzioak sailkatu behar ditugu gure tipologiaren arabera, eragin-mota ezberdinen edukia zehaztuz.

Laugarrena, elkarrekin artikulatuak egon beharko duten urteko programen prestakuntza bideratzea izango da, horretarako ematen diren fitxa teknikoak erabiliz. Zehaztu beharrekoa izango da:

*«Talde eragileak
ahalik eta
zabalena izan
behar du, batetik,
eta herri
bakoitzean izaera
ezberdina izan
dezake, bestetik»*

IHARDUERA- PROGRAMAKETA

0. Funtzioa

1. Aplikazio- esparrua

2. Helburu orokorrak

3. Egoera

4. Helburu zehatzak

5. Iharduera- atalak

5.1. Helburu operatiboak

5.2. Bitartekoak

5.3. Ekintza- programa

5.3.1. Faseak

5.3.2. Iraupena

5.3.3. Egutegia

5.3.4. Ardura

5.3.5. Aurrekontua

5.4. Ekintzen ebaluazioa

Eta azkenik, bostgarrena, programa guztiak jasoko dituen urteko «Planning»aren edo planifikazioaren aplikazioa.